



GAZTE- EKIN BIZKAIA EGITEN DBH 4.



<https://gazteak.bizkaia.eus>



AHOZKO ETA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA 1

GAITASUNA

Ahozko eta idatzizko komunikazioa.

LOTUTAKO GAITASUNAK

Arazo ebazpena, aldaketara egokitzea, sormena, ekimena.

GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Ahozko eta idatzizko prozesuen bidez behar bezala komunikatzeko gaitasuna bezala definitu daiteke, informazioa igorri edo jasotzean ulertzeko eta ulertarazteko trebetasuna lortuz.

HELBURUAK



- Ahozko komunikazioa egoki erabiltzea (hitza eta/edo keinuak).
- Idatzizko komunikazioa egoki erabiltzea (testuak eta/edo grafikoak).
- Pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak adierazten ikastea.
- Ulertzea, entzutea, aztertzea, komunikatzen jakitea, elkarriketan aritzea, azaltzea eta interpretatzea.
- Komunikazio-trukearen arauak erabiltzea.

KURTSOA

DBH 4.

GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hori lortzeko, beharrezkoa izango da sortutako ideiak egituratzea, adierazitako ideiei koherentzia eta kohesioa ematea, komunikazioa testuingurura egokitzea, gramatika- eta ortografia-arauak errespetatuz irakurtzea eta idaztea, aktiboki entzutea, asertiboa izatea, hiztegi aberastasuna izatea, hiztegia testuingurura egokitzea, hitzik gabeko komunikazioaren ezaugarriak ezagutzea eta, batez ere, irakurtzeko eta idazteko interesa garatzea.



AHOZKO ETA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA 1

GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

Paperak aldatzea

DESKRIBAPENA

Dinamika 4-5 pertsonako taldeak eginez planteatzen da, eta helburua ikasleak gelako irakasle bihurtzea da. Horretarako, gai bat prestatu beharko dute (norberarena edo orientatzaileak iradokitakoa), eta ondoren, gainerako ikaskideei ahoz eta idatziz azalduko diete gelan. Azalpena bukatutakoan, gaia azaldu duen taldeak azterketa bat (test laburra) egingo die ikaskideei, azalpenarekin ikasitakoa ebaluatzeko. Testak jaso ondoren, lortutako emaitzen batezbestekoa egingo dute, eta horrek azalpenaren kalitatearen ikuspegi orokorra emango du, azterketaren noten bidez. Beste faktore batzuk esku hartu arren (arreta galtzea, motibazio falta, etab.) zenbat eta nota altuagoa, orduan eta azalpen hobea.

DENBORA-ESTIMAZIOA



Ordu bat.

BEHARREZKO MATERIALA

Orriak.

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Gaia prestatzea.
- Ahozko adierazpenaren kalitatea.
- Idatzizko adierazpenaren kalitatea.
- Test/azterketen batez besteko notak.
- Orientatzailearen ikuskapena.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.



AHOZKO ETA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA 2

GAITASUNA

Ahozko eta idatzizko komunikazioa.

LOTUTAKO GAITASUNAK

Arazo ebazpena, aldaketara egokitzea, sormena, ekimena.

GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Ahozko eta idatzizko prozesuen bidez behar bezala komunikatzeko gaitasuna bezala definitu daiteke, informazioa igorri edo jasotzean ulertzeko eta ulertarazteko trebetasuna lortuz.

HELBURUAK



- Ahozko komunikazioa egoki erabiltzea (hitza eta/edo keinuak).
- Idatzizko komunikazioa egoki erabiltzea (testuak eta/edo grafikoak).
- Pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak adierazten ikastea.
- Ulertzea, entzutea, aztertzea, komunikatzen jakitea, elkarriketan aritzea, azaltzea eta interpretatzea.
- Komunikazio-trukearen arauak erabiltzea.

KURTSOA

DBH 4.

GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hori lortzeko, beharrezkoa izango da sortutako ideiak egituratzea, adierazitako ideiei koherentzia eta kohesioa ematea, komunikazioa testuingurura egokitzea, gramatika- eta ortografia-arauak errespetatuz irakurtzea eta idaztea, aktiboki entzutea, asertiboa izatea, hiztegi aberastasuna izatea, hiztegia testuingurura egokitzea, hitzik gabeko komunikazioaren ezaugarriak ezagutzea eta, batez ere, irakurtzeko eta idazteko interesa garatzea.



AHOZKO ETA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA 2

GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

Azaldu zure hizkuntza

DESKRIBAPENA

Dinamika banaka planteatzen da. Jarduera Interneten, sare sozialetan eta txatetan (xd, omg, fb, pana, bajon, crush, postureo, flow, hater, cobra, zasca, 24/7, eta abar) erabili ohi dituzten zenbait adierazpen labur (akronimoak, jargoia, modismoak) orri batean zerrendatzean datza. Hauek zerrendatu ondoren, idatzizko komunikazioaren bidez azaldu beharko dute zer esan nahi duten, hizkuntza zuzena eta ahalik eta modurik osatuenean erabiliz. Horrela, adierazpen horiek ezagutzen ez dituzten pertsonak ulertu ahal izango dute gelako ondorengo azalpen publikoan. Nahi izanez gero, hiztegiaren deskribapena balitz bezala planteatu daiteke.

DENBORA-ESTIMAZIOA

Ordu bat.

BEHARREZKO MATERIALA

Orriak.

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Emandako adierazpen-kopurua.
- Idatzizko deskribapenaren kalitatea.
- Idazteko arauak betetzea.
- Ikusleek adierazpenak ulertzea.
- Orientatzailearen ikuskapena.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.

